**UDAL OSOKO BILKURA** SESION PLENARIA MUNICIPAL.

**TOKIA / LUGAR:** Udaletxea
**EGUNA / FECHA:** 2016/10/26
**HASIERA / INICIO:** 19:30
**AMAIERA/FINAL:** 21:00

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**ALKATEA/EL ALCALDE:**
Aitor Aretxaga Telletxea

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Naiara Ruiz Badiola (EAJ-PNV)
Iñaki Inzunza Urrutia (EAJ-PNV)
M.ª Ascensión Larrabaster Lezamiz (EH BILDU)
Aritz Arregi Gurrutxaga (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)
Rodolfo Lartitegi Azpitarte (BIT)

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Víctor-Martín Amparan Álvarez

**IZAERA / NATURALEZA:** Ohikoa / Ordinaria
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udaleko Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen.

Alkate Jaunak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Osoko Bilkurak aho batez adostu zuen 2016ko uztailaren 27ko eta irailaren 28ko saioetako aktak onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó aprobar las actas de las sesiones de 27 de julio y 28 de septiembre de 2016.

**2.- Alkatetza-dekretuak.-**

Osoko Bilkurari ondoko alkatetza-dekretuen berri eman zitzaion:

- 9/2016, zeinaren bidez ezkontza-baimenerako ordezkaritza ematen den.
- 10/2016, zeinaren bidez 63/16 eta 64/16 espedienteei dagozkien hirigintza-baimenak ematen diren.
- 11/2016, zeinaren bidez 65/16 eta 66/16 espedienteei dagozkien hirigintza-lizentziak ematen diren.
- 12/2016, zeinaren bidez 67/16 eta 68/16 espedienteei dagozkien hirigintza-baimenak ematen diren.

**2.º.- Decretos de la Alcaldía.-**

El Ayuntamiento Pleno fue informado de los siguientes decretos de la alcaldía:

- 9/2016, por el que se concede delegación para autorización de matrimonio.
- 10/2016, por el que se conceden las licencias urbanísticas correspondientes a los expedientes 63/16 y 64/16.
- 11/2016, por el que se conceden las licencias urbanísticas correspondientes a los expedientes 65/16 y 66/16.
- 12/2016, por el que se conceden las licencias urbanísticas correspondientes a los expedientes 67/16 y 68/16.

**3.- Ondasun higiezinen gaineko zergari buruzko ordenantza.-**

Batzorde Informatzailearen irizpena ikusirik, Osoko Bilkurak honako erabaki hauek hartu zituen aho batez:

LEHENA.- Ondasun Higiezinen gaineko Zerga Arautzen duen Ordenantza Fiskala behin-behinean onartzea.

BIGARRENA.- Jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, Udalaren webgunean, iragarki-taulan eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko den ediktu bitartez, interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzeten erreklamazioak aurkez ditzaten.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, Ordenantza behin betiko onartutzat joko litzateke

**3.º.- Ordenanza del Impuesto sobre bienes inmuebles.-**

Visto el dictamen de la Comisión Informativa, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

PRIMERO.- Aprobar provisionalmente la Ordenanza Fiscal Reguladora del Impuesto sobre Bienes Inmuebles.

SEGUNDO.- Que se someta a información pública, por un período de treinta días, mediante edicto que tendrá que publicarse en el portal web del Ayuntamiento, en el tablón de anuncios y en el Boletín Oficial de Bizkaia, para que los interesados puedan examinar el expediente y presentar las reclamaciones que estimen oportunas.

TERCERO.- En el supuesto de que no se presentaran

automatikoki, eta testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko litzateke.

LAUGARRENA.- Behin betiko onartzeko erabakia edo, hala balegokio, behin-behinekoa behin betikoaren kategoriara automatikoki igarotakoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Ordenantzaren testuarekin batera.

Gaia eztabaidatu bitartean, Batzorde Informatzaileak emandako irizpenak onartzeaz gain, honako erabaki hauek ere hartu ziren:

a) Eguzki-energia aprobetxatzeko sistemak instalatzeko hautazko hobariari buruzko araudia osatzea, Bilboko Udalean onartutakoa erreferentziatzat hartuta.

b) Hondamendi naturalek kaltetutako higiezinetarako % 100eko hautazko hobaria bi urtera mugatzea.

c) Etxebizitza hutsen gainordaina arautzea, Donostian onartutako araudia erreferentziatzat hartuta.

d) Gainordain horren indarraldia 2018. urtera arte atzeratuko duen xedapen iragankorra ezartzea.

e) Azaroan eta abenduan, zerga horren benetako ondorioa aztertzea (zenbat etxebizitzatan litzatekeen aplikagarria eta zenbatekoa izango litzatekeen benetako kopurua), gainordaina 2017an edo 2018an aplikatuko den behin betiko erabakitzeko.

reclamaciones, la Ordenanza se considerará aprobada definitivamente de forma automática, debiendo publicarse el texto íntegro de la misma en el Boletín Oficial de Bizkaia.

CUARTO.- Que el acuerdo de aprobación definitiva o, en su caso, el provisional elevado automáticamente a aquella categoría, junto con el texto de la Ordenanza, se publique en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Durante el debate del asunto, además de los extremos dictaminados por la Comisión Informativa, se acordó:

a) Complementar la normativa sobre bonificación potestativa por instalaciones de sistemas para el aprovechamiento de energía solar, tomando como referencia la aprobada por el Ayuntamiento de Bilbao.

b) Limitar a dos años la bonificación potestativa del 100% a los inmuebles situados en zonas afectadas por catástrofes naturales y que hayan resultado dañados.

c) Regular el recargo a las viviendas vacías tomando como referencia la normativa aprobada en Donostia-San Sebastián.

d) Establecer una disposición transitoria que suspenda la entrada en vigor de este recargo hasta el año 2018.

e) Analizar durante noviembre y diciembre la repercusión real de ese impuesto (a cuántas viviendas le sería aplicable y cuánto sería su importe real) para decidir definitivamente si se aplica el recargo en 2017 ó 2018.

**4.- Idazkaritza/Kontu-hartzailetza lanpostuaren metaketa.-**

Mundakako Udalak igorritako idazkia ikusirik, Udal honetako Idazkari/Kontu-hartzaile Víctor-Martín Amparan Álvarez jauna Udal hartako Idazkari/Kontu-hartzaile izendatzeko baimena eskatzeko, lanpostu-metaketa erregimen pean, Osoko Bilkurak aho batez erabaki zuen eskatutako baimena ematea.

**4.º.- Acumulación del puesto de Secretaría-Intervención.-**

Visto el escrito remitido por el Ayuntamiento de Mundaka solicitando autorización para la designación como Secretario-Interventor de aquel Ayuntamiento a D. Víctor-Martín Amparan Álvarez, Secretario-Interventor de este Ayuntamiento, en régimen de acumulación de plaza, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó conceder la autorización solicitada.

**5.- Galde-eskeak.-**

Ruiz andreak jakinarazi zuenez, Euskararen egunaren harira proposatu da Udal honetako zinegotziek eta bertoko langileek, tokiko elkarteekin batera, iraupen laburreko bideo bat grabatzea euskararekiko konpromisoa adierazteko. Horregatik, hurrengo Batzorde Informatzailearen ostean, bideorako irudiak grabatzen hasiko dira, zinegotziei dagokienez.

Inzunza jaunak Busturian gertatzen ari diren lapurretei aurre egiteko Udalak hartutako neurriak jakinarazi zizkien zinegotziei, besteak beste: Ertzaintza, biktima, aseguru-konpainiarekiko eta abarrekiko kontaktuak...

**5.º.- Ruegos y preguntas.-**

La Sra. Ruiz informó de que, con motivo del día del Euskera, se ha propuesto que, tanto los concejales del Ayuntamiento, sus trabajadores, como las asociaciones locales, graben un vídeo de escasa duración manifestando su compromiso con el euskera. Por ello, después de la próxima Comisión Informativa se procederá al rodaje del vídeo correspondiente a los concejales del Ayuntamiento.

El Sr. Inzunza informó a los concejales de las medidas adoptadas por el Ayuntamiento ante la serie de robos que se están produciendo en Busturia y que incluyen contactos con la Ertzaintza, víctimas, compañías aseguradoras, etc…

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde

Idazkaria/El Secretario,

Aitor Aretxaga Telletxea

Víctor-Martín Amparan Álvarez